

UPV/EHUko ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUETAKO LANGILEEN BAIMENEI BURUZKO ESKULIBURUA

HELBURUA

Baimenei buruzko eskuliburu honen helburua da baimen horiek tramitatu eta kudeatzeko zereginak erraztea arlo horretako arduradunei, bai eta baimen bakoitzaren gaineko azalpen argiak eskaintzea administrazio eta zerbitzuetako langile guztiei.

NORI ZUZENDUA

Eskuliburu hau zuzenduta dago, bereziki, baimenak ematen dituzten pertsoneri eta baimen horiek tramitatu eta kudeatzeaz arduratzen diren langileei; baita, oro har, UPV/EHUko administrazio eta zerbitzuetako langileei.

EGITURA

A. Atal orokorra: eskuliburuaren lehen zatia hasierako hiru taula dira, UPV/EHUⁿ eska daitezkeen baimenei buruzko datu orokorrak biltzen dituztenak.

1. Baimenen gaineko arauak
2. Azalpena
3. Eskaerak: tramiteak eta onespena

Taula horien ondoren, beste taula bat dago ("Baimenen zerrenda"), baimen guztiak jasotzen dituena. Taula horrek aukera ematen du baimen bakoitzari buruzko informaziora joateko zuzenean, kasuan kasuko epigrafean klik eginez.

B. Taula espezifikoak: hasierako taulen ondoren UPV/EHUⁿ har daitezkeen baimenei buruzko datuak agertzen dira. Atal bakoitzean agertzen da zein arautegitan azaltzen den baimena, bakoitzaren ezaugarriak adierazten dira, eta baimena tramitatzeko aurkeztu behar diren dokumentuak zehazten dira.



Taula bakoitzaren ondoren **maiz egiten diren galderak (FAQ)** agertzen dira, baimen bakoitzari buruzko informazio praktikoa ematen dutenak.

IKURRAK

Taula espezifikoetan **puntu berdeak** erabili dira, nabarmentzeko alderdi bereziki garrantzitsuak eta baimenak kudeatzean sarri kontuan izaten ez diren ñabardurak.



A. ATAL OROKORRA

BAIMENEN GAINEKO ARAUAK

Estatuko arauak	<p>* Legegintzako 5/2015 Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateratua onartzen duena (III. tituluko V. kapitulua).</p> <p>* 6/2019 Errege Lege Dekretua, martxoaren 1ekoa, lanean dauden emakumeen eta gizonen arteko tratu eta aukera berdintasuna bermatzeko premiazko neurriei buruzkoa</p>
Euskal Autonomia Erkidegoko arauak	<p>* 6/1989 legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa (III. titulua, VI. kapitulua)</p>
UPV/EHUko arauak	<p>* <u>UPV/EHUko langileen lan baldintzak arautzeko hitzarmena, 1996koa (II. titulua)</u></p> <p>* <u>UPV/EHUko administrazio eta zerbitzuetako lan kontratudun langileen III. hitzarmena, 2010ekoa (V. titulua)</u></p> <p>* Akordioa, 2011ko irailaren 16koa, Negoziazio Mahaiarena, UPV/EHUko administrazio eta zerbitzuetako langile eta irakasle eta ikertzaile funtzionarioen lan baldintzei buruzkoa</p> <p>* Urteroko zirkularra, UPV/EHUko gerentearena, administrazio eta zerbitzuetako langileen urteko lanaldia, lan orduen kontrola, oporrak eta baimenak zehazten dituen zirkularra onartzeko dena</p> <p>* Akordioa, 2022ko martxoaren 23koa, UPV/EHUko Berdintasunerako Batzorde Intersektorialarena.</p> <p>* Lana, familia eta bizitza pertsonala kontziliatzeko UPV/EHUren gida (2024ko ekainaren 27a)</p> <p>* Akordioa, 2024ko uztailaren 9koa, UPV/EHUko Berdintasunerako Batzorde Intersektorialarena.</p>



<p>AZALPENA</p> <p>-UPV/EHUko administrazio eta zerbitzuetako lan kontratudun langileen III. hitzarmena (1. eta 30. artikulua) -UPV/EHUko langileen lan baldintzak arautzeko hitzarmena (14. eta 17. artikulua) -Akordioa, 2011ko irailaren 16koa, Negoziazio Mahaiarena, UPV/EHUko administrazio eta zerbitzuetako langile eta irakasle eta ikertzaile funtzionarioen lan baldintzei buruzkoa</p>	
<p>Onuradunak</p>	<p>UPV/EHUko administrazio eta zerbitzuetako langile guztiak</p> <p>Administrazio eta zerbitzuetako bitarteko funtzionarioen eta aldi baterako lan kontratudun langileen kasuan baimenen iraupenak ez du zerbitzu harremana edo kontratua bukatzen den eguna gaindituko.</p>
<p>Baldintzak</p>	<ol style="list-style-type: none"> 1. Baimenak emango dira Presentzia Ataria deiturikoan ezarritako prozeduren arabera. 2. Ezin izango da batera hartu baimen mota bat baino gehiago. <u>Salbuespena</u>: bularra edo biberioia emateko baimena eta lanaldiaren murrizpena dakarten baimenak bateragarriak izango dira gainerakoekin. 3. Oporraldiarekin batera ezin izango da baimen ordaindurik eduki, langilearen gaixotasuna edo istripua salbu. 4. Baimenei dagozkien egunak gertaerak jazotzen direnean hartu beharko dira nahitaez, berariaz beste aukerarik ematen ez bada.



ESKAERAK: TRAMITEAK ETA ONESPENA	-UPV/EHUko administrazio eta zerbitzuetako lan kontratudun langileen III. hitzarmena (30. artikulua) -Akordioa, 2011ko irailaren 16koa, Negoziazio Mahaiarena, UPV/EHUko administrazio eta zerbitzuetako langile eta irakasle eta ikertzaila funtzionarioen lan baldintzei buruzkoa -Zirkularra, UPV/EHUko gerentearena, 2014ko lanaldia, lan orduen kontrola, oporrak eta baimenak zehazten dituenak
Eskaera eredua	Baimenak emango dira Presentzia Ataria deiturikoan ezarritako prozeduren arabera.
Tramitazio modu honetatik kanpo geratzen direnak	1. Lan orduen barruan euskalduntze ikastaroetara joateko baimenak. 2. UPV/EHUK antolatutako prestakuntza ikastaroak. Aipatutako baimen biak horretarako egingo diren deialdiek arautuko dituzte.
Epea	Eskaera gutxien dela zazpi egun lehenago egin beharko da. <u>Salbuespenak:</u> <ol style="list-style-type: none"> 1. Baja, aldi baterako ezintasunagatik. 2. Baimena aita edo ama izateagatik (baimena erditze egunean bertan hasten denean). 3. Baimena eragin duen gertaeraren izaeragatik ezinezkoa denean eskaera goian adierazitako epean egitea. Halakoetan gertaeraren egun berean eman behar zaio horren berri hurreneko nagusiari, arrazoi apartekorik egon ezean. Eskaera eredua ahal bezain laster bete behar da, medikuak baja ematen duenean <u>izan ezik</u> .
Egiaztagiriak	Eskaerarekin batera egiaztagiriak aurkeztu behar dira. (Ikusi baimen bakoitzaren taula).



B. ATAL ESPEZIFIKOA

BAIMENEN ZERRENDA

1. AMA BIOLOGIKOARENTZAKO BAIMENA UMEA IZATEAGATIK
2. ADOPZIOA
3. HAURDUNALDIKO AZTERKETAK, ERDITZEA PRESTATZEKO TEKNIKAK ETA EGOKITASUN AGIRIRAKO SAIOAK
4. BULARREKO UMEA ZAINTZEKO BAIMENA
5. AITA IZATEA
6. GENERO INDARKERIAREN BIKTIMA DIREN EMARUMEAK
7. NORBERA EDO SENIDEREN BAT EZKONTZEA. BIZIKIDETZA EGONKORRAREN HASIERA
8. SENIDEEN ISTRIPUA, GAIXOTASUN LARRIA EDO HERIOTZA
9. UTZIEZINEZKO ZEREGIN PUBLIKO EDO PRIBATUAK
10. OHIKO ETXEBIZITZAZ ALDATZEA
11. SINDIKATUAREN EDO LANGILEEN ORDEZKARIA IZATEA
12. PREBENTZIOKO ORDEZKARIA IZATEA
13. ADINGABEAK, EZINDUAK EDO GAIXOAK ZAINTZEA
14. IKASKETAK
15. LAN ORDUZ KANPOKO EUSKARA IKASTAROAK
16. AZTERKETAK
17. KONTSULTA, TRATAMENDU EDO AZTERKETA MEDIKOETARA JOATEA
18. EKITALDI KOLEKTIBOAK
19. NORBERAREN KONTUAK



<p>AMA BIOLOGIKOARENTZAKO BAIMENA UMEA IZATEAGATIK</p>	<p>-Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legea (70.2 artikulua, a) eta f) atalak) -UPV/EHUko langileen lan baldintzak arautzeko hitzarmena (19.1 eta 19.2 artikulua) eta lan kontratadun langileen III. hitzarmena (32. artikulua) - 6/2019 Errege Lege Dekretua, martxoaren 1ekoa, lanean dauden emakumeen eta gizonen arteko tratu eta aukera berdintasuna bermatzeko premiazko neurriei buruzkoa - Akordioa, 2019ko urriaren 28koa, AZPko langileen eta irakasle-ikertzaileen negoziazio batzordeena, adingabeak zaintzeagatiko kontziliazio baimenak baliokidetzeari buruzkoa -Akordioa, 2011ko irailaren 16koa, Negoziazio Mahaiarena, UPV/EHUko administrazio eta zerbitzuetako langile eta irakasle eta ikertzaile funtzionarioen lan baldintzei buruzkoa</p>		
ARRAZOIA	IRAUPENA	OHARRAK	DOKUMENTAZIOA
<p>Ama biologikoarentzako baimena umea izateagatik</p>	<p>- 18 aste.</p> <p>- 2 aste gehiago umeak desgaitasunen bat badauka.</p> <p>- Ume bat baino gehiago jaioz gero, bigarrenetik aurrerako bakoitzagatik 2 aste gehiago.</p> <p>Kasu bietan, luzapen horren iraupena berdin banatuko da gurasoen artean, eta elkarren segidan hartuko dute. Aurreko bi suposamenduak aldi berean ematen badira, bi luzapenak batuko dira, elkarrekiko baztertzailak izan gabe.</p> <p>- Semea edo alaba hiltzen bada, baimena ez da murriztuko, baldin eta, nahitaezko atsedendia igaro ondoren (6 aste) berriro lanean hastea eskatzen ez den.</p> <p>- Baimen ordaindua, haurdunaldiko 37. astearen lehen egunetik erditze egunera arte.</p> <p>Haurdunaldi anizkoitzen kasuan, baimen hori haurdunaldiko 35. astearen lehen egunetik hartu ahal izango da erditze egunera arte.</p>	<p><u>Nahitaezko zatia:</u> 6 aste, erditu ondoren etenik gabe hartu beharrekoak.</p> <p>Baimena ez da etengo ama aldi baterako ezintasun egoeran egon arren aipatutako 18 asteen barruan.</p> <p><u>Borondatezko zatia:</u> Guraso biek egiten badute lan, nahitaezko atsedendiko lehen sei asteak igaro ondoren, baimen hau etenik gabe hartu ahal izango da, erditzearen ostean nahitaez hartu beharreko atsedendia amaitu eta semeak edo alabak 12 hilabete bete arte. Baimena etenak eginez hartuko bada, hartu nahi den aldi bakoitza baino 15 egun lehenago bidali beharko da jakinarazpena, eta asteka hartu beharko da.</p> <p>Gurasoetako batek ez badu egiten lan etxetik kanpo, baimeneko aste guztiak <u>etenik gabe</u> hartu beharko dira, eta elkarren segidan, hau da, baimenak aldi berean hartu gabe.</p> <p>Baimen hau egun osoz hartu ahal izango da, bai eta zatika ere zerbitzuaren premiek horretarako aukera ematen badute, betiere zehaztuko den moduan.</p> <p>Jakinarazitako baimen aldia baino lehenago laneko istripua izanez gero, baimena beranduago hartu ahal izango da, baina betiere umeak urte bat bete baino lehenago.</p> <p>Langileak administrazioak deitutako prestakuntza ikastaroetan parte hartu ahal izango du baimena hartuta dagoenean.</p>	<p>- Baja agiria</p> <p>- Familia liburuaren edo jaiotza agiriaren fotokopia</p>



Guraso bakarreko familiak	Beste gurasoak nahitaez hartu behar ez duen zatiari dagozkion baimen ordainduak luzatu eta metatu ahal izango dira, eta 30 astera heldu (18 + 12).	Guraso bakarreko familia da guraso batek eta bere ardurapean dauden seme-alabek osatutakoa.	- Jaiotza agiria edo familia liburua
Jaioberriaren ospitaleratzea	Garaia baino lehenagoko erditzeen kasuan eta jaioberria ospitalean geratu behar denean baimena luzatu egingo da, jaioberriak ospitalean eman behar dituen egunak beste, baina gehienez ere beste hamahiru astez		- Ospitaleko agiria - Familia liburuaren edo jaiotza agiriaren fotokopia
Amaren heriotza	Beste gurasoak oinarrizko araudiak onartutako baimen osoa edo, hala behar bada, geratzen den baimenaren zatia hartzeko eskubidea izango du.		- Heriotza agiria edo eskela - Familia liburuaren edo jaiotza agiriaren fotokopia
Haurdunaldia eteteagatiko baimena	Haurdunaldia 6. astearen eta 179. egunaren artean eteten zaien emakumeek 3 egun balioduneko baimena hartu ahal izango dute, umekia galdu eta berehala. Haurdunaldia 6. hilabetetik aurrera eteten bada, jaiotzagatiko baimenaren parekoa.		- Medikuen txostena

FAQ:

- **Langileak eska al dezake baimenen bat alaba erditu delako?** Bai, langileak 2 eguneko baimena izango luke alaba ospitalean egoteagatik (5 egun alaba langilearekin bizi bada), eta kasuan kasuko baimena eskatu beharko luke (ikusi 15. orria).



ADOPZIOA, ADOPZIO EDO HARRERARAKO ZAINZTA

-UPV/EHUko lan kontratudun langileen III. hitzarmena (33. artikulua)
 -Akordioa, 2011ko irailaren 16koa, Negoziazio Mahaiarena, UPV/EHUko administrazio eta zerbitzuetako langile eta irakasle eta ikertzaile funtzionarioen lan baldintzei buruzkoa
 - 6/2019 Errege Lege Dekretua, martxoaren 1ekoa, lanean dauden emakumeen eta gizonen arteko tratua eta aukera berdintasuna bermatzeko premiazko neurriei buruzkoa
 - - Legegintzako 5/2015 Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatutako Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateratua onartzen duena (III. tituluko V. kapitulua).
 -- Akordioa, 2019ko urriaren 28koa, AZPko langileen eta irakasle-ikertzaileen negoziazio batzordeena, adingabeak zaintzeagatiko kontziliazio baimenak baliokidetzeari buruzkoa

ARRAZOIA	IRAUPENA	OHARRAK	DOKUMENTAZIOA
<p>Adopzioa, adopzio edo harrerarako zaintza</p>	<p>- Sei urtetik beherako umea, edo sei urtetik gorako umea, desgaitasun edo minusbalotasunen bat duena, edota behar bezala egiaztatutako arazoak dauzkatenak gizartean edo familian txertatzeko: etenik gabeko 18 aste.</p> <p>- Sei urtetik beherako umea, desgaitasunen bat duena: 2 aste gehiago.</p> <p>- Ume bat baino gehiago adoptatu edo hartzea: 2 aste gehiago ume bakoitzagatik, bigarrenetik aurrera.</p> <p>Kasu bietan, luzapen horren iraupena berdin banatuko da gurasoen artean, eta elkarren segidan hartuko dute. Aurreko bi suposamenduak aldi berean ematen badira, bi luzapenak batuko dira, elkarrekiko baztertzailak izan gabe.</p> <p>Haurraren adopzio baimena eta aldi baterako nahiz behin betiko adopzio edo harrerarako zaintza baimena hartu ahal izango da adopzioa eratzten duen erabaki judiziala baino lau aste lehenago edo harrerarako zaintza eratzten duen erabaki judizial edo administratiboa baino lau aste lehenago.</p>	<p><u>Nahitaezko zatia:</u> 6 aste, hasiera dataren ondoren etenik gabe hartu beharrekoak. Epea noiztik zenbatu langileak erabakiko du, bai harreraren erabaki administratibo edo judizialek aurrera bai adopzioaren erabaki judizialek aurrera.</p> <p>Harreraren kasuan urte bat baino gehiagokoa izan behar da.</p> <p>18 aste horien barruan lanerako ezintasun iragankorra izan arren baimena ez da etengo.</p> <p><u>Borondatezko zatia:</u> Guraso biek egiten badute lan, nahitaezko atsedendaldiko lehen sei asteak igaro ondoren, baimen hau etenak eginez hartu ahal izango da, erditzearen ostean nahitaez hartu beharreko atsedendaldia amaitu eta umeak 12 hilabete bete arte. Baimena etenak eginez hartuko bada, hartu nahi den aldi bakoitza baino 15 egun lehenago bidali beharko da jakinarazpena, eta astea hartu beharko da.</p> <p>Gurasoetako batek ez badu egiten lan etxetik kanpo, adopzio baimeneko eta adopzio edo harrerarako zaintza baimeneko aste guztiak <u>etenik gabe</u> hartu beharko dira umeak 12 hilabete baino gehiago dituenean. Baimenak elkarren segidan hartuko dira, aldi berean hartu gabe.</p> <p>Baimen hau egun osoz hartu ahal izango da, bai eta zatika ere zerbitzuaren premiek horretarako aukera ematen badute, betiere zehaztuko den moduan. Jakinarazitako baimen aldia baino lehenago laneko istripua izanez gero, baimena beranduago hartu ahal izango da, baina betiere umeak urte bat bete baino</p>	<p>- Familia liburuaren fotokopia - Harreraren erabaki administratibo edo judiziala edo adopzioaren erabaki judiziala - Gizarte zerbitzuaren ziurtagiria, desgaitasunaren, minusbalotasunaren edo familian edo gizartean txertatzeko arazoena</p>



		<p>lehenago.</p> <p>Langileak administrazioak deitutako prestakuntza ikastaroetan parte hartu ahal izango du baimena hartuta dagoenean.</p>	
<p>Umearen jaioterrira joatea adopzioa baino lehenago</p>	<p>Nazioarteko adopzioa: gurasoak umearen jaioterrira joan behar badira adoptatu aurretik, adopzio edo harrerarako baimena hartu ahal izango da adopzioaren erabakia baino lau aste lehenagotik</p>	<p>Bi hilabete horietan oinarrizko ordainsariak baino ez dira jasoko.</p>	

**HAURDUNALDIKO
AZTERKETAK, ERDITZEA
PRESTATZERO TEKNIKAK
ETA EGOKITASUN
AGIRIRAKO SAIOAK**

*-UPV/EHUko langileen lan baldintzak arautzeko hitzarmena (19.4 artikulua) eta lan kontratudun langileen III. hitzarmena (32.3 artikulua)
-Akordioa, 2011ko irailaren 16koa, Negoziazio Mahaiarena, UPV/EHUko administrazio eta zerbitzuetako langile eta irakasle eta ikertzaile funtzionarioen lan baldintzei buruzkoa*



ARRAZOIA	IRAUPENA	OHARRAK	DOKUMENTAZIOA
Haurdunaldia	Erditza prestatzeko teknikak: egunean bi ordu, gehien dela bi hilabetez.	Erditze aurreko gimnasiara joan ahal izateko beharrezkoa izango da medikuak egindako agiria aurkeztea aldez aurretik.	- Gimnasia saioetara joatea agintzen duen medikuaren agiria - Erditza prestatzeko tekniken egutegia
	Haurdunaldiko azterketak: azterketak egiteko behar den beste denbora.	Langilearen bikoteak edo ezkontideak ere baimena izango du.	- Medikuaren agiria, ordua zehaztuta - Familia liburuaren fotokopia edo izatezko bikoteen erregistroaren ziurtagiriaren fotokopia
Egokitasun agirirako saioak	Informazio eta prestakuntzako saioetara joateko behar den beste denbora, bai eta egokitasun ziurtagiria lortzeko beharrezkoak diren txosten psikologiko eta sozialak egiteko behar dena ere, lan orduen barruan egin behar badira.		- Erakundearen agiria, saioaren ordutegia zehaztuta

**BULARREKO UMEA
ZAINTEKO BAIMENA**

*-UPV/EHUko langileen lan baldintzak arautzeko hitzarmena (19.3 artikulua) eta lan kontratudun langileen III. hitzarmena (32.2 artikulua)
-Akordioa, 2011ko irailaren 16koa, Negoziazio Mahaiarena, UPV/EHUko administrazio eta zerbitzuetako langile eta irakasle eta ikertzaile funtzionarioen lan baldintzei buruzkoa*

ARRAZOIA	IRAUPENA	OHARRAK	DOKUMENTAZIOA
----------	----------	---------	---------------



<p>Bularreko umea zaintzeko baimena</p>	<p>Ordubeteko etenaldia egunean edo lanaldia murriztea, hamabi hilabetetik beherako ume bakoitzeko (bi zatitan bana daiteke).</p> <p>Erditze berean ume bat baino gehiago jaioz gero, egunean bi ordu (bi zatitan bana daiteke).</p> <p>Lanaldi jarraitua.</p> <p>Edoskitzea gehitzea haurdunaldi eta erditze baimenari.</p> <p>Nahitaezko aldia amaitu baino lehen eskatu beharko da, eta jaiotzagatik, adopzioagatik, zaintzagatik, harreragatik edo ama biologikoa ez den guraso izateagatik har daitekeen baimena amaitzen denetik aurrera hartu ahal izango da, edo, adingabea jaio eta baimen horien parekoa den denbora igaro ondoren.</p>	<p>Interesdunak zehaztuko du noiz murriztuko duen lanaldia, eguneko lanaldiaren barruan: zein ordutatik zein ordutara eta zein egunetatik zein egunetara.</p> <p>Metatutako edoskitzaroa kalkulatzeko kontuan hartuko da zenbat lanegun geratzen diren umeak hamabi hilabete bete arte. Langileak ez du jasoko diru kopuru txikiagorik baimen hau duen bitartean eta, bukatzen zaionean, eszedentzia edo ordaindu gabeko baimena eskatu ahal izango du.</p>	<p>- Familia liburuaren fotokopia</p>
<p>Arriskua haurdunaldian / arriskua edoskitze naturalean</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Laneko baldintzak zein denbora edo laneko txanda egokitzeko eskubidea, edo lanpostuaren eginkizunak aldatzekoa. - Kontratua etetea: <ul style="list-style-type: none"> - Erditzeagatik edo bularreko haurrak 9 hilabete bete arte. - Langilea aurreko lanpostura edo bere egoerarekin bateragarria den beste batera itzuli ahal izan arte. 	<p>Haurdun edo bularra ematen dagoen emakumeak ahalik eta lasterren jakinarazi behar dio kasuan kasuko egoera Prebentzio Zerbitzuko Osasun Arloari.</p>	<p>Prebentzio Zerbitzuaren alde aurreko gomendio txostena.</p>



AITA IZATEA -UPV/EHUko lan kontratudun langileen III. hitzarmena (34. artikulua) -Akordioa, 2011ko irailaren 16koa, Negoziazio Mahaiarena, UPV/EHUko administrazio eta zerbitzuetako langile eta irakasle eta ikertzaile funtzionarioen lan baldintzei buruzkoa			
ARRAZOIA	IRAUPENA	OHARRAK	DOKUMENTAZIOA
Umea izatea, umea adoptatzea edo umea hartzea	- 18 aste. - Umeak desgaitasunen bat izanez gero: bi aste gehiago. - Erditze berean ume bat baino gehiago jaioz gero: bi aste ume bakoitzagatik, bigarrenetik aurrera. Kasu bietan, luzapen horren iraupena berdin banatuko da gurasoen artean, eta elkarren segidan hartuko dute. Aurreko bi suposamenduak aldi berean ematen badira, bi luzapenak batuko dira, elkarrekiko baztertzailak izan gabe. - Semea edo alaba hiltzen bada, baimena ez da murriztuko, baldin eta, nahitaezko atsedendia igaro ondoren (6 aste), berriro lanean hastea eskatzen ez den. - Adopzio kasuetarako, joan "Adopzioa edo harrera" atalera.	6 aste (nahitaezko zatia), erditu ondoren etenik gabe hartu beharrekoak. 18 aste horien barruan lanerako ezintasun iragankorra izan arren baimena ez da etengo. 0} Guraso biek egiten badute lan, nahitaezko atsedendiko lehen sei asteak igaro ondoren, baimen hau etenik gabe hartu ahal izango da, erditzearen ostean nahitaez hartu beharreko atsedendia amaitu eta semeak edo alabak 12 hilabete bete arte. Baimena etenak eginez hartuko bada, hartu nahi den aldi bakoitza baino 15 egun lehenago bidali beharko da jakinarazpena, eta astea hartu beharko da. Baimen hau egun osoz hartu ahal izango da, bai eta zatika ere zerbitzuaren premiek horretarako aukera ematen badute, betiere zehaztuko den moduan. Jakinarazitako baimen aldia baino lehenago laneko istripua izanez gero, baimena beranduago hartu ahal izango da, baina betiere umeak urte bat bete baino lehenago. Langileak administrazioak deitutako prestakuntza ikastaroetan parte hartu ahal izango du baimena hartuta dagoenean.	- Familia liburuaren fotokopia, jaiotza agiria, harreraren erabaki administratibo edo judiziala edo adopzioaren erabaki judiziala.

FAQ:

- **Aita izatean opor egunak eten egiten al dira?** Bai, eta interesatuak alta egunaren ondoko sei hilabeteetan hartu behar ditu geratzen zaizkion egunak, betiere kasuan kasuko urtearen barruan.
- **Aita izatean baimen berreskuratuko egunak eten egiten al dira?** Bai, eta interesatuak alta egunaren ondoko hiru hilabeteetan hartu behar ditu geratzen zaizkion egunak, betiere kasuan kasuko urtearen barruan.



GENERO INDARKERIAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEAK	-UPV/EHUko gerentearen 2007ko uztailearen 4ko erabakia (3.7 artikulua). Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua (49.d artikulua) -UPV/EHUko lan kontratadun langileen III. hitzarmena (101. artikulua) -Akordioa, 2011ko irailaren 16koa, Negoziazio Mahaiarena, UPV/EHUko administrazio eta zerbitzuetako langile eta irakasle eta ikertzaile funtzionarioen lan baldintzei buruzkoa		
ARRAZOIA	IRAUPENA	OHARRAK	DOKUMENTAZIOA
Genero indarkeriaren biktima diren emakumeak	<p>Lanera ez joatea, egun osoan edo zati batean, justifikatuzat hartuko da gizarte edo osasun zerbitzuek zehaztutako epean eta baldintzetan.</p> <p>Genero indarkeriaren biktima diren emakumeek, babesaren edo gizarte laguntza osoa jasotzeko eskubidea gauzatu ahal izateko, lanaldia murrizteko eskubidea izango dute, ordainsaria modu proportzionalan gutxituta. Lanaldia heren bat edo gutxiago murrizten denean ordainsari osoa jasoko da.</p> <p>Lanaldia berrantolatze eskubidea (ordutegia egokituta, ordutegi malgutasuna aplikatuta edo ezar daitezkeen bestelako sistema batzuk erabilita).</p> <p>Eszedentzia: babesaren edo gizarte laguntza osoa jasotzeko eskubidea gauzatu ahal izateko, genero indarkeriaren biktima diren emakumeek eszedentzia eskatzeko eskubidea izango dute, alde aurretik zerbitzuan gutxienez denbora bat emateko beharra izan gabe, eta ezin izango zaie eskatu eszedentzian epe jakin bat egoteko.</p> <p>Mugikortasuna: genero indarkeriaren biktima den emakumeak lanpostua utzi behar badu nahitaez, lehentasuna izango du eskatzeko administrazioko beste atal bateko lanpostu batera joatea, herri berean edo beste batean,</p>	<p>OHARRAK</p> <p>Eszedentziaren lehenengo sei hilabeteetan betetzen ari diren lanpostua gordeko zaie genero indarkeriaren biktima diren emakumeei. Aldi hori kontuan hartuko da antzinatasunerako, karrera profesionalerako eta aplikagarri izango zaien Gizarte Segurantzaren erregimenerako. Jardun judizialek hala eskatzen badute, eszedentzia beste hiru hilabetez luzatu ahalko da, gehienez ere hemezortzi hilabetera arte eta arestian aipatutako ondorio berberekin.</p> <p>Eszedentziaren lehenengo sei hilabeteetan genero indarkeriaren biktima diren emakumeek ordainsari osoak jasotzeko eskubidea izango dute, bai eta seme-alabak beren ardurapean izateagatik dagozkien familia prestazioak ere, halakorik egokituz gero..</p>	<p>DOKUMENTAZIOA</p> <p>- Gizarte zerbitzuen agiria</p> <p>- Mugikortasunaren eskaeran langileak adieraziko du zeintzuk herritara joan nahi duen, eta babes aginduaren edo Fiskaltzaren txostenaren kopia erantsiko du.</p>



	nahiz eta ez egon derrigorrean bete beharreko plaza hutsik.		
--	---	--	--



NORBERA EDO SENIDEREN BAT EZKONTZEA. BIZIKIDETZA EGONKORAREN HASIERA			
-Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legea (70.2.h artikulua) -UPV/EHUko langileen lan baldintzak arautzeko hitzarmena (22. artikulua) eta lan kontratadun langileen III. hitzarmena (35 . artikulua) -Akordioa, 2011ko irailaren 16koa, Negoziazio Mahaiarena, UPV/EHUko administrazio eta zerbitzuetako langile eta irakasle eta ikertzaile funtzionarioen lan baldintzei buruzkoa			
ARRAZOIA	IRAUPENA	OHARRAK	DOKUMENTAZIOA
Norbera ezkontzea	20 egun natural, ezkontza eguna barne.	Batu daiteke oporrekin eta baimen errekuperatuko txandekin, baina 15 egun lehenago jakinarazi behar da.	- Eskaria eta, gero, ezkontza agiria edo familia liburuaren fotokopia.
Bizikidetzaren egonkorra (ezkondu gabeko bikoteak)	20 egun natural. Bizikidetzaren hasten denetik eta baimena hartzen denera ezingo da hilabete natural bat baino gehiago igaro.	Ezingo da ezkontza edo bizikidetzako beste baimenik hartu harik eta sei urte igaro arte, eta inola ere ez bikotekideak berberak baldin badira.	- Euskal Autonomia Erkidegoko Izatezko Bikoteen Erregistroaren agiria - Bikotekideetako batek ere ez badauka bizilekua autonomia erkidegoan, interesatuak erroldatuta dauden herriko udalak emandako bizikidetzaren ziurtagiria
Bigarren mailarainoko senideren bat ezkontzea	Egun natural bat. Ospakizuna langilearen bizilekutik 150 kilometro baino urrunago egiten bada, hiru egun natural.	Langileak ezkontza eguna izango du libre.	- Eskaria eta, gero, ezkontza agiria edo familia liburuaren fotokopia



SENIDEEN ISTRIPUA, GAIXOTASUN LARRIA EDO HERIOTZA -Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legea (70.2.a artikulua) -UPV/EHUko langileen lan baldintzak arautzeko hitzarmena (23. artikulua) eta lan kontratudun langileen III. hitzarmena (36. artikulua) -2002ko arazoaren 27ko erabakia (IV. erabakia): UPV/EHUko funtzionarioen indarreko hitzarmena eta lan kontratudun langileen indarreko hitzarmena hobetzeko baldintzak (8. artikulua) -UPV/EHUko funtzionario eta lan kontratudun langileen Batzorde Parekideak 1999ko irailaren 3an egindako bileraren akta -Akordioa, 2011ko irailaren 16koa, Negoziazio Mahaiarena, UPV/EHUko administrazio eta zerbitzuetako langile eta irakasle eta ikertzaile funtzionarioen lan baldintzei buruzkoa - UPV/EHUko Berdintasunerako Batzorde Intersektorialaren Akordioa (2022/03/23)			
ARRAZOIA	IRAUPENA	OHARRAK	DOKUMENTAZIOA
Ezkontidearen, bikotekidearen, seme-alaben edo ardurapeko adingabearen edo langilearekin bizi diren gurasoen istripua, gaixotasun larria edo heriotza edo atsedenaldea eskatzen duen ospitaleratze gabeko ebakuntza	5 lanegun (2 egun natural gehiago gertaerak langilearen ohiko bizilekutik 150 km baino urrunago izan badira).	Altaren ondorengo 15 lanegunen barruan hartu ahal izango dira egunok. Heriotza gertatuz gero, egunak gertaerak jazotzen direnean hartu behar dira. Honakoak hartuko dira gaixotasun larritzat : - UPV/EHUko Prebentzio Zerbitzuko Osasun Atalak halakotzat hartuak. -- Anestesia osoarekin egindako ebakuntza eta gau bateko ospitaleratzea. - Gaua ospitalean igarotzea gaixoa bertan dagoenean, - Ebakuntzaren ondoren etxean arreta etengabea behar duen susperraldia, beti ere, UPV/EHUko Prebentzio Zerbitzuko Osasun Atalak halakotzat jotzen badu.	- UPV/EHUko Osasun Zerbitzuaren agiria, beharrezkoa izanez gero. - Ospitaleko agiria, beharrezkoa izanez gero.
1. mailako senidearen istripua, gaixotasun larria edo atsedenaldea eskatzen duen ospitaleratze gabeko ebakuntza.	5 lanegun		Aurreko dokumentazioarekin batera, bizikidetzaren agiria edo familia liburua aurkeztuko da, dagokionaren arabera.
1. mailako senidearen heriotza	3 lanegun gertaera udalerriri berean denean, eta 5 lanegun beste udalerriri batean denean.	Gaixotasun larri egiaztatua: bigarren baimena hartu ahal izango da lehenengoa amaitu eta 30 egun igaro ostean. Gaixotasun terminalen kasuan aipatutako denbora tartea igaro baino lehen hartu ahal izango da bigarren baimena. Bigarren baimena hartzen den kasuetan, ezin dira hartu langilearen bizilekutik 150 km baino urrunago egoteagatik egunak.	Gaixotasuna terminala denean, bigarren baimena telefonoz eska daiteke.
2. mailako senidearen istripua, gaixotasun larria edo heriotza edo atsedenaldea eskatzen duen ospitaleratze gabeko ebakuntza.	5 lanegun		Ospitaleratze gabeko ebakuntza ziurtagiria, etxean atsedean hartzen igaro beharreko denbora adierazita.



Bizikidea izanik maila handiagoko senidearen istripua, gaixotasun larria edo heriotza edo atsedena eskatzen duen ospitaleratze gabeko ebakuntza.	2 lanegun (2 egun natural gehiago gertaerak langilearen ohiko bizilekutik 150 km baino urrunago izan badira).		
2. mailako senidearen heriotza	3 lanegun gertaera udalerrian bertan denean; 4 lanegun beste udalerritan izan bada (egun natural bat gehiago gertaera langilearen ohiko bizilekutik 150 km baino urrunago izan bada)	Egunak gertaera jazotzen denean hartu behar dira	- Heriotza agiria edo eskela
Bizikidea izanik maila handiagoko senidearen heriotza	3 lanegun (2 egun natural gehiago gertaerak langilearen ohiko bizilekutik 150 km baino urrunago izan badira).	Egunak gertaera jazotzen denean hartu behar dira	- Heriotza agiria edo eskela
Premiazko familia arrazoiak	Orduka hartzeko baimena, 4 egunen baliokidea.	Langileak lanetik irteteko eskubidea izango du, ezinbesteko arrazoiengatik, beharrezkoa denean senide edo bizikideekin zerikusia duten premiazko eta bat-bateko familia arrazoiengatik, gaixotasunagatik edo langilea berehala bertaratzea eskatzen duen istripuagatik.	- Ezinbesteko arrazoa egiaztatzen duen ziurtagiria.

Ahaidetasun maila: lehen mailakoa: a) ezkontidea edo bikotekidea b) norbere gurasoak edo ezkontidearenak edo bikotekidearenak c) seme-alabak, suhia/erraina
bigarren mailakoa: a) norbere edo ezkontidearen edo bikotekidearen aitona-amonak; b) norbere edo ezkontidearen edo bikotekidearen neba-arrebak c) norbere edo ezkontidearen edo bikotekidearen ilobak; **hirugarren mailakoa:** a) birramonak eta birraitonak b) birlobak c) izeko-osabak eta lobak

Egun naturalak: astelehenetik igandera; **egun baliodunak/lanegunak:** astelehenetik ostiralera.

FAQ:

- **Senide baten heriotza lanegun batean gertatzen bada, noiztik hasten da kontatzen baimena?** Senidea hil zaion langileak lanaldi osoa egin badu, baimena hurrengo egunetik aurrera kontatzen da. Aldiz, gertaera langilea lanean ari den bitartean edo lanaldia hasi aurretik jazotzen bada, baimena egun horretan bertan hasten da.
- **Zenbat egun dagozkio langile bati, senide bat badu ospitalean?** Ahaidetasun mailaren arabera.
- **Langilearen senide bat ospitaleratu egin behar bada egunez egingo dioten proba mediko bat dela eta, gaixotasun larritzat hartzen da ospitalean egon behar delako?** Ez bada 24 orduko ospitaleratzea ezin da baimena hartu, hau da, ez badu ematen gaua ospitalean.



- **Langilearen senide bati ebakuntza egiten badiote ospitaleratu gabe, har daiteke egunik?** Bai, baldin eta egoera ziurtagiri bidez egiaztatzen bada etxean atsedean hartzen igaro beharreko denbora adierazita.
- **Ebakuntza egin eta ospitaleak alta eman ondoren, gaixoa berriro ospitaleratu behar bada egun batzuk beranduago, arazoren bat sortu zaiolako, baimen berbera da ala langileak beste baimen bat hartzeko eskubidea dauka?** Senideak ospitaleratu behar badu ebakuntzaren ondorio diren arazoengatik, beste baimen bat dagokio langileari.
- **Gaixoa, alta eman gabe, ospitale batetik beste batera aldatzen badute, baimen berbera da ala langileak beste baimen bat hartzeko eskubidea dauka?** Baimen berbera da, baimena izateko arrazoia aldatu ez delako.
- **Senideren batek umea izanez gero, langileak baimena eska dezake?** Ospitalean ingresatuta egonez gero, beti dauka eskubidea istripuagatik edo gaixotasun larriagatik baimen ordaindua eskatzeko.
- **Senide baten gaixotasun larriagatik baimena har al daiteke elkarren segidakoak ez diren egunetan?** Bai, baldin eta baimena gertaerak dirauen bitartean hartzen bada.
- **Zer da "beste udalerrri bat"?** "Beste udalerrri bat" da langilearen ohiko bizilekua kokatuta dagoen udalerrria ez dena.



UTZIEZINEZKO ZEREGIN PUBLIKO EDO PRIBATUAK			
<i>-Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legea (70.2.d artikulua) -UPV/EHUko langileen lan baldintzak arautzeko hitzarmena (24. artikulua) eta lan kontratudun langileen III. hitzarmena (38. eta 47. artikulua) -2002ko arazoaren 27ko erabakia (IV. erabakia): UPV/EHUko funtzionarioen indarreko hitzarmena eta lan kontratudun langileen indarreko hitzarmena hobetzeko baldintzak (9. eta 12.. artikulua) -UPV/EHUko funtzionario eta lan kontratudun langileen Batzorde Parekideak 1999ko irailaren 3an egindako bileraren akta -Akordioa, 2011ko irailaren 16koa, Negoziazio Mahaiarena, UPV/EHUko administrazio eta zerbitzuetako langile eta irakasle eta ikertzailen funtzionarioen lan baldintzei buruzkoa</i>			
ARRAZOIA	IRAUPENA	OHARRAK	DOKUMENTAZIOA
Epategietara, auzitegietara, polizia etxeetara eta antzeko organoetara joateko deiak, NANA, pasaporteak, ziurtagiriak eta erregistroko izapideak egitea erakundea ofizialetan	Tramiteak egiteko behar den beste denbora.	Utziezinezko zeregintzat hartzen dira ondoren aipatzen diren baldintzak aldi berean betetzen dituztenak: <ul style="list-style-type: none"> - Beste inori eskuordetu ezin zaion zeregin pertsonala da, hau da, beste pertsonak batek ezin du egin. - Izaera publikoa du. - Ezin da egin lan orduetatik kanpo. - Zeregina ez betetzeak erantzukizun penala, zibila edo administratiboa dakar. 	- Egindako tramitearen egiaztagiria, hasierako eta amaierako orduak zehaztuta
Desgaitasun fisiko edo psikikoren bat duen 2 mailarainoko senideei laguntzea goian aipatutako tramiteak egitera			
Gidabaimena eskuratzeko azterketa edo hura berritzeko tramiteak			
Errekerimendu eta tramite notarialak.			
Erakunde ofizialetan egin beharreko tramiteak.			
Gobernu organoen eta haien menpeko batzordeen bileratara joatea, langilea horietako kargudun hautetsia bada, adibidez zinegotzia, diputatua, batzarkidea, legebiltzarkidea, administrazio batzarretako kidea edo auzo alkatea			
Bilerak seme-alaben irakasle			



edo tutoreekin	Bilerak irauten duen beste, eta gehienez ere lau ordu urtean seme-alaba bakoitzeko.		- Ikastetxearen agiria, ordua zehaztuta
Kargu hautetsia izatea erakundeetan	Behar beste denbora, baina urtean, gehienez ere, lanorduen % 10 hartu ahal izango da. Lanaldia murriztu daiteke: 1/8, 1/5, 1/3 edo % 50	Baimen hau ez da ordaindua izango, eta langileek errekuperatu egin beharko dituzte orduak. Ohiko lanaldia murrizten duen langileari ordainsaria ere hein berean murriztuko zaio, kontzeptu guztietan. Langileak, orduak hartu ordez, ohiko lanaldia murriztea eska dezake.	- Hauteskunde mahaiaren ziurtagiria
Hauteskundeetan kargu hauetarako hautagaia izatea: - Gorte Nagusietako diputatu edo senatari - Europako Parlamentuko edo Eusko Legebiltzarreko diputatu - Lurralde historikoetako batzar nagusietako kide - Beste autonomia erkidego batzuetako legebiltzarretako kide - Udalbatzako kide - Administrazio batzarretako kide	Hauteskunde kanpaina.		- Hautagaitzen aldarrikapena
Aurreko atalean aipatutako hauteskundeetan hauteskunde mahaiko burua, kidea edo ikuskatzailea izatea	5 orduko murrizpena bozketaren hurrengo eguneko lanaldian.	Bozketaren eguna laneguna bada, hauteskunde mahaiko buruak kideak edo ikuskatzaileak egun osoko baimen ordaindua izango du bozketaren egunean.	- Hauteskunde mahaiaren ziurtagiria (gero)
Hauteskunde sindikaletan hautagaitza ofizial bateko kidea izatea	Zereginak betetzeko behar den beste denbora, hautagaitzen aldarrikapena egiten denetik hauteskunde kanpaina amaitu arte.		- Hautagaitzen aldarrikapena
Hauteskunde sindikaletan	Bozketaren hurrengo eguneko lanaldian	- Hauteskunde mahaiko burua, kideak edo	



<p>hauteskunde mahaiko buru, kide edo ikuskatzailea izatea</p>	<p>bost orduko murrizpena.</p>	<p>ikuskatzaileak: baimen ordaindua bozketaren egunean.</p>	
	<ul style="list-style-type: none"> - Hauteskunde mahaia lantokian bertan badago, botoa emateko behar den beste denbora. - Hauteskunde mahaia herri berean badago, botoa emateko behar den beste denbora, baina gehienez ere bi ordu. - Hauteskunde mahaia beste herri batean badago, botoa emateko behar den beste denbora, baina gehienez ere hiru ordu. 		<p>- Hauteskunde mahaiaren ziurtagiria.</p>

FAQ:

- **Ahalduna banaiz hauteskunde mahai batean, murriztu al dezaket lanaldia bost ordu bozketaren hurrengo egunean?** Ahaldunek baimen ordaindua har dezakete bozketaren egunean, egun hori laneguna bada; baina ezin dute murriztu lanaldia bost ordu bozketaren hurrengo egunean.



OHIKO ETXEBIZITZAZ ALDATZEA			
<i>-Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legea (70.2.b artikulua) -UPV/EHUko langileen lan baldintzak arautzeko hitzarmena (26. artikulua) eta lan kontratudun langileen III. hitzarmena (39 . artikulua) -Akordioa, 2011ko irailaren 16koa, Negoziazio Mahaiarena, UPV/EHUko administrazio eta zerbitzuetako langile eta irakasle eta ikertzaile funtzionarioen lan baldintzei buruzkoa</i>			
ARRAZOIA	IRAUPENA	OHARRAK	DOKUMENTAZIOA
Ohiko etxebizitzaz aldatzea	2 egun natural etxebizitza berria udalerrri berean badago, eta 3 egun beste udalerrri batean badago.	Baimen egunak jarraian hartu ahal izango dira, edo etenak eginda.	- Erroldatze ziurtagiria

Egun naturalak: astelehenetik igandera; **egun baliodunak:** astelehenetik ostiralera **laneguna:** langile bakoitzaren lan egutegiaren arabera

SINDIKATUAREN EDO LANGILEEN ORDEZKARIA IZATEA			
<i>-Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legea (70.2.e artikulua) -UPV/EHUko langileen lan baldintzak arautzeko hitzarmena (26. artikulua) eta lan kontratudun langileen III. hitzarmena (40 . artikulua) -Akordioa, 2011ko irailaren 16koa, Negoziazio Mahaiarena, UPV/EHUko administrazio eta zerbitzuetako langile eta irakasle eta ikertzaile funtzionarioen lan baldintzei buruzkoa</i>			
ARRAZOIA	IRAUPENA	OHARRAK	DOKUMENTAZIOA
Sindikatuaren edo langileen ordezkaria izateko hautatua izatea.	Indarreko legerian eta hitzarmenean adierazitakoa.		- Eskaria, alde zuzenetik, ordu sindikalak hartzeko - Bertaratze ziurtagiria

PREBENTZIOKO ORDEZKARIA IZATEA			
<i>-UPV/EHUko langileen lan baldintzak arautzeko hitzarmena (44. artikulua) eta lan kontratudun langileen III. hitzarmena (81.2 artikulua) -Akordioa, 2011ko irailaren 16koa, Negoziazio Mahaiarena, UPV/EHUko administrazio eta zerbitzuetako langile eta irakasle eta ikertzaile funtzionarioen lan baldintzei buruzkoa</i>			
ARRAZOIA	IRAUPENA	OHARRAK	DOKUMENTAZIOA
Prebentzioko ordezkaria izatea, baina ez langileen ordezkari organoko kidea edo sindikatuaren ordezkaria.	Hilean hamar orduko kreditua. Orduok ezin dira pilatu.	Baimen honen helburua da bisitak egitea lantokietara. Orduak hartu ahal izatea zerbitzuaren premien menpe egongo da.	



ADINGABEAK, EZINDUAK EDO GAIKOAK ZAINTZA

- Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legea (72. artikulua)
- UPV/EHUko langileen lan baldintzak arautzeko hitzarmena (27. artikulua) eta lan kontratadun langileen III. hitzarmena (37., 42., 43. eta 53. artikulua)
- 2002ko arazoaren 27ko erabakia (IV. erabakia): UPV/EHUko funtzionarioen indarreko hitzarmena eta lan kontratadun langileen indarreko hitzarmena hobetzeko baldintzak (10., 11. eta 14.. artikulua)
- UPV/EHUko gerentearen 2007ko uztailaren 4ko erabakia (3.6 artikulua). Langileen Estatutua, martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoko hamaikagarren xedapen gehigarriak aldatua (37.5 artikulua)
- Akordioa, 2011ko irailaren 16koa, Negoziazio Mahaiarena, UPV/EHUko administrazio eta zerbitzuetako langile eta irakasle eta ikertzaile funtzionarioen lan baldintzei buruzkoa
- UPV/EHUko Berdintasunerako Batzorde Intersektorialaren Akordioa (2022/03/23)

ARRAZOIA	IRAUPENA	OHARRAK	DOKUMENTAZIOA
14 urtetik beherako adingabea jagotea, zaintza legala izateagatik	<u>Lanaldiaren murrizketa:</u> 1/2, 1/3, 1/5 edo 1/8 <u>Ordu erdi gehiagoko malgutasuna</u> lanean sartzeko, lanetik irteteko eta bazkaltzeko	Ordu malgutasuna: Hartutako denbora hilabeteko zenbaketan errekuperatuko da (egunean gehienez ordu eta laurden, zerbitzuak, hala komeni zaiolako, denbora gehiago errekuperatzeko baimenik eman ezean). Ordainsaria ere hein berean murriztuko zaio langileari, kontzeptu guztietan. Oporretako orduak ere modu proportzionalen murriztuko dira.	- Familia liburua edo zaintza legala egiaztatzen duen agiria
Aparteko arreta behar duen adinekoa jagotea, zaintza legala izateagatik	<u>Lanaldiaren murrizketa:</u> 1/2, 1/3, 1/5 edo 1/8		- Zaintza legala egiaztatzen duen agiria
Lan ordaindua egiten ez duen ezindu fisiko, psikiko edo sensoriala jagotea, zaintza legala izateagatik			- Familia liburua edo zaintza legala egiaztatzen duen agiria - Ezintasuna egiaztatzen duen agiria - Lanaren errentarik jasotzen ez dela egiaztatzen duen agiria (Ogasuna)
Gaixotasun oso larria duen ezkontidea, bikotekidea, seme-alabak eta gurasoak jagotea, bai eta urrunagoko ahaidetasuna izan arren	Lanaldia erdiraino murriztea, gehien dela hilabetez	Lansari osoa jasotzen da. Eskubide horren titular bat baino gehiago egongo balitz gertaera eragile berberetatik, murrizketa hori titularren artean hainbanatzeko aukera egongo litzateke, hilabete bateko gutxieneko epea	- Familia liburua - Bizikidetzatza agiria, halakorik behar izanez gero - Medikuen txostena, beren-beregi adierazten duena gaixotasuna oso larria dela



langilearekin bizi den senidea ere		errespetatuz betiere.	
Senitarteko bat, ahaidetasuneko bigarren mailarainokoa, adinagatik, istripuagatik, gaixotasunagatik edo ezgaitasunagatik bere kabuz moldatzeko gai ez dena eta soldatapeko jarduerarik egiten ez duena.	<u>Lanaldiaren murrizketa:</u> 1/2, 1/3, 1/5 edo 1/8 Gaixotasuna larri eta luzea bada, edo senideak mugikortasun arazoak baditu, bi ordu gehiagoko malgutasuna lanean sartzeko, lanetik irteteko eta bazkaltzeko,	Ordainsaria ere hein berean murriztuko zaio langileari, kontzeptu guztietan. Oporretako orduak ere modu proportzionalan murriztuko dira. Ordu malgutasuna: hartutako denbora hilabeteko zenbaketan errekuperatuko da (egunean gehienez ordu eta laurden, zerbitzuak, hala komeni zaiolako, denbora gehiago errekuperatzeko baimenik eman ezean).	- Familia liburua - Medikua agiria - Bizikidetzaren agiria, halakorik behar izanez gero
% 65etik gorako ezgaitasuna duen semea edo alaba zaintzea.	Lanaldiaren murrizketa: 1/3.	Seiren bateko murrizketa ordainsarietan.	- Familia liburua - Desgaitasun ziurtagiria
Gaixotasun larri iraunkorra edo mugikortasun arazoak dituen 2. mailarainoko senidea jagotea, bai eta urrunagoko ahaidetasuna izan arren langilearekin bizi den senidea ere	Urtean 50 ordurainoko baimen ordaindua	Oro har, egunean gehienez ere 2 ordu, lanera sartzean edo irtetean, baina, behar bezala egiaztatutako <u>aparteko kasuetan</u> , orduak egun bat hartzeko erabil daitezke.	- Familia liburua - Medikua txostena gaixotasun larria edo mugitzeko arazoak egiaztatzen dituena. - Bizikidetzaren agiria, halakorik behar izanez gero
Minbizia edo beste gaixotasun larriren bat duen seme edo alaba adingabea jagotea	Lanaldiaren murrizketa: gutxienez lanaldiaren 50%.	Murrizketa, ordainduta, minbizia (tumore gaiztoak, melanomak edo kartzinomak) daukan seme edo alaba adingabea ospitalean eta tratamendua modu jarraian hartzen ari den bitartean, baita ospitalean dagoen bitartean bertan egotea eskatzen duen gaixotasun larria izateagatik ere, egiaztatuta badago adingabeak norbaiten zaintza zuzena behar duela denbora guztian. Baimena amaituko da hori hartzeko arrazoia desagertzen denean edo adingabeak 18 urte betetzean.	- Familia liburua - Osakidetzaren edo kasuan kasuko itunpeko osasun erakundearen agiria, beren-beregi adierazten duena gaixotasuna larria dela. • Bi gurasoek baimena hartzeko eskubidea badute, beste gurasoak ordainsaria osorik jasotzen ez duela egiaztatu beharko da.
Lanera itzultzea erradioterapia edo kimioterapia tratamendua amaitu ondoren	Unibertsitateak lanaldira pixkanaka egokitze baimena eman ahal izango du, horrek pertsonari guztiz osatzen laguntzen badiu, edo horrek eragozten	Egokitze aldia hilabetekoa izango da, medikuak langileari alta ematen dionetik hasita, eta eguneko lanaldiaren % 25 gehienez. Ahal dela, lanaldiaren	- Eskaera, adierazita egokitze aldia eta ehunekoa. - Egiaztagiria aurkeztu beharko dira,



(salbuespenez, bestelako tratamendu bereziki larriak)	badu langileari egoera bereziki nekagarriak edo zailak sortzea bere lana egitean.	malgutasun tartean hartuko da baimena, eta lanaldiaren zati hori lan egindako tartetzat hartuko da. Egokitzealdi hori beste hilabete batez luzatu ahal izango da.	langilearen egoera frogatzen dutenak eta lanaldia egokitzeko beharra edo komenigarritasuna adierazten dutenak. - Unibertsitateak hiru egun izango ditu eskaera ebazteko.
Guraso baimena	Zati daitekeen baimena, gehienez 8 astekoa, adingabeak 8 urte baino lehen hartu beharrekoa	Ordaindu gabeko baimena, baina ez ditu opor-orduak deskontatzen (udako oporrak, ordutegi-poltsak, antzinatasuna)	Familia liburua edo zaintza legala egiaztatzen duen agiria

FAQ:

- **Eska al daiteke 50 orduko baimena senide bat zaintzeko, langileak lanaldia laburtuta badauka adingabe bat edo desgaitasunen bat duen pertsona zaintzeko?**
Bai. Ezinezkoa da baimen mota bat baino gehiago hartzea aldi berean, baldin eta horietako bat ez bada adingabea edo desgaitasunen bat duen pertsona zaintzeko baimena edo bularra nahiz biberioa emateko baimena.
- **Eska al daiteke 50 orduko baimena senide bat zaintzeko, langileak kasu espezifikoetarako lanaldi berezia badauka?** Bai, baina langileak ez badauka lanaldia murriztuta lanaldi bereziaren ondorioz, baizik eta urteko lanaldia beste modu batera antolatuta. Dena den, lanaldi berezia bada % 65etik gorako desgaitasuna duen senidea jagoteko, 50 orduko baimena eskatu ahal izango da, nahiz eta lanaldia murriztuta izan, baldin eta 50 orduko baimena ez bada izango lanaldi berezia izatea ahalbidetzen duen pertsona berbera zaintzeko.



IKASKETAK			
-Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legea (71.a artikulua) -UPV/EHUko langileen lan baldintzak arautzeko hitzarmena (28. artikulua) eta lan kontratudun langileen III. hitzarmena (44. artikulua) -Akordioa, 2011ko irailaren 16koa, Negoziazio Mahaiarena, UPV/EHUko administrazio eta zerbitzuetako langile eta irakasle eta ikertzaile funtzionarioen lan baldintzei buruzkoa			
ARRAZOIA	IRAUPENA	OHARRAK	DOKUMENTAZIOA
Langileak betetzen duen lanpostuaren eginkizunekin lotura zuzena duten hobekuntza ikasketak	Baimenak ezingo du ikasturte bat baino gehiago iraun.	Baimena ikasketa eta ikastaro hauek egiteko har daiteke: <ul style="list-style-type: none"> a) Unibertsitatean nahiz Euskal Autonomia Erkidegoko eta estatuko prestakuntza zentro ofizialetan egiten diren ikasketak. b) IVAPek antolatutako ikastaroak, aldez aurretik egiaztatuta langilea onartuta dagoela kasuan kasuko ikastaroa egiteko eta baduela dagokion organo eskudunaren baimena horretarako. Aipatutako ikasketak egiteko baimenak dagokion konpentsazio ekonomikoa izan dezake, zerbitzuko arrazoiengatik kalte ordainei buruzko UPV/EHUren arautegiaren arabera, eta betiere ikastaroa antolatu duen erakundeak ez baditu ordaintzen kasuan kasuko gastuak.	- Langilea ikastaroa egiteko onartuta dagoela egiaztatzen duen agiria - Matrikularen fotokopia



LAN ORDUZ KANPOKO EUSKARA IKASTAROAK	-UPV/EHUko langileen lan baldintzak arautzeko hitzarmena (54.2 artikulua) eta lan kontratudun langileen III. hitzarmena (78.1.d artikulua) -Administrazio eta zerbitzuetako langileen 2009ko lanaldia, lan orduen kontrola, oporrak eta baimenak zehazten dituen zirkularra (9.4 artikulua eta II. eranskineko 2. puntua) -2009ko urtarrilaren 28ko erabakia, administrazio eta zerbitzuetako langileen lanaldia, lan orduen kontrola, oporrak eta baimenak zehazten dituen zirkularra aldatzeko dena -Akordioa, 2011ko irailaren 16koa, Negoziazio Mahaiarena, UPV/EHUko administrazio eta zerbitzuetako langile eta irakasle eta ikertzaile funtzionarioen lan baldintzei buruzkoa		
ARRAZOIA	IRAUPENA	OHARRAK	DOKUMENTAZIOA
Egunean gutxienez bi orduko ikastaro presentziala, lan orduetatik kanpo	Langileak bi aukera ditu: a) ohiko lanaldia egin eta, ikastarora joandako orduen arabera, gehienez ere 5 laneguneko baimena hartzea, txandaka zein jarraian. b) lanetik ordu erdi lehenago irtetea eskola egunetan. Lana arratsaldean egiten duten langileen kasuan ordu erdi beranduago sartuko dira lanera.	Baimena ikastaroari ateratako onuraren menpe egongo da. Aldi baterako langileen kasuan lan egindako denboraren arabera izango da.	- Euskaltegiaren ziurtagiria, ikastaroaren ordu kopurua eta ikaslea joandako ordu kopurua zehaztuta.
Egunean gutxienez bi orduko autoikaskuntza saioak, lan orduetatik kanpo	Gehienez ere 5 laneguneko baimena, txandaka zein jarraian.	Langile bakoitzak urtean gehienez 5 egun hartu ahal izango ditu euskara ikastegatik lan orduetatik kanpo. 2016ko martxoaren 31 bitartean hartu ahal izango da, baldin eta langileak ezin izan bada hartu zirkular hau indarrean egon den bitartean, baimena eragin duen ikastaroa abenduaren bukatu delako.	
Euskara ikastaroak barnetegian, lan orduetatik kanpo (IVAPen deialdikoak izan zein ez)	Barnetegian egindako lanegunen herenari dagokion baimena, baina gehienera ere 5 lanegun urtean.		



AZTERKETAK			
-UPV/EHUko langileen lan baldintzak arautzeko hitzarmena (29. artikulua) eta lan kontratudun langileen III. hitzarmena (45. artikulua) -UPV/EHUko funtzionario eta lan kontratudun langileen Batzorde Parekideak 1999ko irailaren 3an egindako bileraren akta -Akordioa, 2011ko irailaren 16koa, Negoziazio Mahaiarena, UPV/EHUko administrazio eta zerbitzuetako langile eta irakasle eta ikertzaile funtzionarioen lan baldintzei buruzkoa			
ARRAZOIA	IRAUPENA	OHARRAK	DOKUMENTAZIOA
Lanpostuarekin zerikusi zuzena ez duten azterketa akademikoak egitea zentro ofizial edo homologatuetan	Azterketa egiteko beharrezkoa den beste denbora.	Egin beharreko proba edo azterketa bakoitzeko egun natural bat gehienez, bai ohiko deialdietan bai ezohikoetan. Azterketa langilearen bizilekutik 150 km baino urrunago egin behar bada, baimena beste bi egun naturalekoa izango da. Baimen hau ordaindua izango da.	- Bertaratze ziurtagiria, orduak zehaztuta

FAQ:

- **Eska al daiteke baimen hau ikertzeko gaitasuna egiaztatzeko probak egiteko, tesietarako eta abar?** Bai, zentro ofizialetan egiten diren proba akademikoak direlako.
- **Eska al daiteke baimen hau hizkuntza eskola ofizialetako azterketak egiteko?** Bai, betiere zentro ofizialak badira eta ziurtagiria homologatuta badago.
- **Eska al daiteke baimen hau hizkuntza eskola ofiziala ez den zentro batean egiteko hizkuntza azterketa?** Bai, betiere UPV/EHUko Koordinazioaren eta Nazioarteko Harremanen arloko errektoreordearena 2017ko maiatzaren 22ko erabakiko¹ eranskinean agertzen diren hizkuntzen jakite maila egiaztatzen duen agiria lortzeko bada.

¹ Ofizialak ez diren hizkuntzen baliokidetzari buruzko erabakia



KONTSULTA, TRATAMENDU EDO AZTERKETA MEDIKOETARA JOATEA				
-UPV/EHUko langileen lan baldintzak arautzeko hitzarmena (30. artikulua) eta lan kontratadun langileen III. hitzarmena (41. artikulua) -Akordioa, 2011ko irailaren 16koa, Negoziazio Mahaiarena, UPV/EHUko administrazio eta zerbitzuetako langile eta irakasle eta ikertzaile funtzionarioen lan baldintzei buruzkoa - UPV/EHUko Berdintasunerako Batzorde Intersektorialaren Akordioa (2022/03/23)				
ARRAZOIA	IRAUPENA	OHARRAK	DOKUMENTAZIOA	
Langilea bera joatea kontsulta, tratamendu edo azterketa medikora		Baimen ordaindua.	- Medikuaren agiria, ordua zehaztuta	
Kontsulta, tratamendu edo azterketa medikora joan behar duten gurasoei laguntzea, baldin eta 65 urtetik gorakoak badira edo desgaitasuna badute		❖ Baimena hartu ahal izango da, betiere, zentroek ez badute kontsulta ordurik lanorduetatik kanpo.	- Familia liburua, halakorik behar izanez gero - Desgaitasunaren egiaztagiria, halakorik behar izanez gero	
Kontsulta, tratamendu edo azterketa medikora joan behar duten ardurapeko 16 urtetik beherako seme-alabei laguntzea		Behar beste denbora baina gehienez ere 4 ordu, behar bezala egiaztatutako kasuetan salbu.	Norbere premietarako edo ardurapeko 16 urtetik beheragoko adingabearen premietarako kontsultetan barne daude tratamendu psikologikoak	- Osakidetzaren edo Mufacen agiria norbere kabuz moldatzeko ezintasuna egiaztatzeko.
Kontsulta, tratamendu edo azterketa medikora laguntzea ardurapeko 16 urtetik beherako seme-alaba, ezkontidea edo egitatezko bikotea, tratamendu onkologikorako edo egiaztatutako gaixotasun larria izanik ezin bada bere kabuz moldatu.				
Kontsulta, tratamendu edo azterketa medikoetara laguntzea 2. mailara arteko senideei, baldin eta desgaitasun fisikoa edo psikikoa badute.				



EKITALDI KOLEKTIBOAK			
<i>-UPV/EHUko langileen lan baldintzak arautzeko hitzarmena (31. artikulua) eta lan kontratudun langileen III. hitzarmena (46. artikulua) -Akordioa, 2011ko irailaren 16koa, Negoziazio Mahaiarena, UPV/EHUko administrazio eta zerbitzuetako langile eta irakasle eta ikertzaile funtzionarioen lan baldintzei buruzkoa</i>			
ARRAZOIA	IRAUPENA	OHARRAK	DOKUMENTAZIOA
Ekitaldi zientifikoak, teknikoak, profesionalak, elkargoenak, elkarteak edo sindikatuenak	Ekitaldi horietara joateko beharrezkoa den denbora.	<p>Zerbitzuaren premien arabera eta kasuan kasuko organo eskudunak aurretik baimena emanda.</p> <p>Langileak bere ekimenez eskatutako baimena:</p> <ul style="list-style-type: none"> a) Ordaindua izango da, baina gehienez ere 5 eguneko baimena ordainduko da. b) Ez da jasoko kalte ordainik inolako kontzepturengatik. <p>Baimena eskatu ahal izango da joateko biltzar, ikastaro, mintegi, sinposio, topaketa, lehiaketa, solasaldi, hitzaldi, bilera eta jardunaldietara.</p>	- Ekitaldiko dokumentazioa



NORBERAREN KONTUAK			
<p>-UPV/EHUko langileen lan baldintzak arautzeko hitzarmena (32. artikulua) eta lan kontratadun langileen III. hitzarmena (48. artikulua) -2002ko arazoaren 27ko erabakia (IV. erabakia): UPV/EHUko funtzionarioen indarreko hitzarmena eta lan kontratadun langileen indarreko hitzarmena hobetzeko baldintzak (13. artikulua) -2005eko azaroaren 18ko erabakia, UPV/EHUko funtzionarioen lan baldintzak hobetzeko dena (13. artikulua) -Akordioa, 2011ko irailaren 16koa, Negoziazio Mahaiarena, UPV/EHUko administrazio eta zerbitzuetako langile eta irakasle eta ikertzaile funtzionarioen lan baldintzei buruzkoa</p>			
ARRAZOIA	IRAUPENA	OHARRAK	DOKUMENTAZIOA
Edotariko arrazoiak	Zatikatu daitekeen baimena, gehienez ere 3 hilabete hartuta bi urterik behin (baimenaren lehen egunetik hasiko da kontatzen).	Baimen hau eskatu ahal izateko, gutxienez urte bat igarota egon beharko da langilea jardunean hasi edo jardunera itzuli zenetik. Norberaren kontuetarako baimena ez da ordainduko eta oporrak kalkulatzeko baimen aldi hori ez da kontuan hartuko.	
Ikasketa ofizialak	Gehienez lau hilabete jarraian. Baimen hau urtero eska daiteke. Hala zehazten den kasuetan, lanaldia heren bat, bosten bat edo zortziren bat murrizteko eskubidea eman dezake. Horrelakoetan ordainsariak ere hein berean murriztuko dira.	Baimen hau ematea edo ez ematea zerbitzuaren premien menpe egongo da beti. Baimena ukatzeko erabakiak arrazoituak izan beharko dira.	- Ikasketa ofizialen matrikula
Zereginen bat burutzea garatzeko bidean dauden herrialdeetan, GKeren baten babesean	Gutxienez 3 hilabete, eta bost urteko epean arrazoi honengatik hartutako baimenek ezingo dute bi urteko muga gainditu.		- GKeren ziurtagiria
Administrazio eta erakunde publikoetan sartzeko deialdiak	Probetan parte hartzeko behar adineko denbora.	Baimen hau ez da ordaindua baina orduak erreperatu ahal izango dira, betiere zerbitzuaren premien arabera.	- Bertaratze ziurtagiria, orduak zehaztuta
Preso dauden bigarren mailarainoko odol senideei bisita egitea	Behar den beste denbora, betiere bisitak lan orduetatik kanpo egin ezin badira.	Baimen hau ematea edo ez ematea zerbitzuaren premien menpe egongo da. Baimena ukatzeko erabakiak arrazoituak izan beharko dira.	- Bisitaren agiria
Lanaldia murriztea (1/2, 1/3, 1/5 edo 1/8)	Murrizpena gutxienez urtebetekoa izango da, eta ezingo da halako beste	Langile finkoek baino ezin dute eskatu.	



	<p>baimenik eskatu harik eta hiru urte igaro arte aurrekoa amaitu zenetik.</p>	<p>Baldintza: baimen hau eskatu ahal izateko gutxienez bi urte igarota egon beharko dira langilea jardunean hasi edo jardunera itzuli zenetik.</p> <p>Ordainsari guztiak hein berean murriztuko dira, hirurtekoak barne.</p> <p>Lanaldia murrizten bazaio, langileak ezin izango du murriztutako ordutegian bestelako lanik egin, ordaindua izan zein ez.</p> <p>Baimen hau ematea edo ez ematea zerbitzuaren premien menpe egongo da. Baimena ukatzeko erabakiak arrazoituak izan beharko dira.</p>	
--	--	--	--

FAQ:

- **Norberaren kontuetarako baimena eskatzen badut astelehenetik ostegunera hilabete batean eta ostiraletan beste baimen bat hartzen badut (antzinatasuna, aukerako egunak...), zenbat egun deskontatzen dizkidate?** Norberaren kontuetarako baimena eskatzen bada asteburu batek edo jaiegun batek banatutako aldietarako, baita biek batera banatutako aldietarako ere, lehen egunetik azken eguneraino kontatzen da, aldi bakartzat hartzen baita. Halakoetan ezin da hartu inolako baimenik hilabeteko ostiraletan, ez norberaren kontuetarako baimenik, ez aukerako egunik, ez antzinatasunik, ez oporrik.
- **Norberaren kontuetarako baimena eskatzen badut ostiral eta astelehen baterako, zenbat egun deskontatzen dizkidate?** Lau egun, larunbata eta igandea ere kontatzen direlako.
- **Norberaren kontuetarako baimena eskatu nahi dut lau egunerako, baina jaiegun bat daukan aste batean. Zeintzuk dira ondorio ekonomikoak?** Norberaren kontuetarako baimena eskatzen denez bost egun baino gutxiagorako aste berean, aste osoa kontatzen da, nahiz eta aste hori jaiegunean hasi edo bukatu, edota aste horretan jaiegun bat egon.
- **Norberaren kontuetarako baimena eskatu nahi badut egun baterako, eta egun hori astelehena, ostirala edo jaiegun baten bezpera bada, zenbat egun deskontatzen dizkidate?** Eskatutako eguna besterik ez.